

## ALEMANA

### HELBURUAK

1- Eguneroko bizitzan erabiltzeko eta ikaslearen errealitate hurbilaren deskribapen errazak sortu eta ulertu ahal izateko behar den hizkuntza-terminologia eta egiturei buruz **hausnartzea**.

2- *Gelan*, eguneroko bizitzan eta errealitate hurbilean, idatziz zein ahoz sortzen diren testuak **ulertzea**. Testu mota ezberdinak iturri ezberdinetatik jasoko dira: CDak, pelikulak, aldizkariak, liburuak, internet.... Elkarrizketak, testu narratiboak, deskribapenak. Informazio espezifikoa zein orokorra eskuratzeko gai izatea, garrantzitsua dena eta ez dena bereizten.

3- Jasotako hizkuntza ezagutza erabiliz eta loturiko giza-elementuak zein kulturalak kontutan harturik, idatzizko zein ahozko testu errazak **ekoiztea**: ahozko aurkezpenak, eguneroko bizitzan ematen diren elkarrizketak (eskolan, gelan, dendan, jatetxean..), idatzizko testu narratiboak, deskriptiboak , eskutitzak eta iritzia ematekoak.

4- Ikasketa prozesuan inplikaturik dauden elementu guztiekiko **jarrera positiboa adieraztea**: Atzerriko hizkuntzak eta beste kulturak ezagutzeko interesa eta errespetua, kideekiko zein irakaslearekiko errespetua, ardura, interesa, autonomia.